

PRESTAKUNTZA-MODULUAREN IDENTIFIKAZIO-DATUAK

PRESTAKUNTZA-MODULUA	EHIZA- ETA ARRAIN-BALIABIDEEN USTIAPENAREN KONTROLA ETA ZAINZA	Iraupena	70
Kodea	MF0085_3		
Lanbide-arloa	SEGURTASUNA ETA INGURUMENA		
Lanbide-eremua	Ingurumen-kudeaketa		
Profesionaltasun-ziurtagiria	Natura-ingurunearen kontrola eta babesia	Maila	3
Profesionaltasun-ziurtagiria osatzeko gainerako prestakuntza	Naturaguneetako eta landa-eremuetako erabilera publikoaren kontrola	Iraupena	60
	Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko kudeaketa-prozedurak.		70
	Hondakinen eta/edo isurien kontrola eta zaintza		50
	Baliabide naturalen ustiapenen kontrola eta zaintza		80
	Basoberritzea eta leheneratze hidrologikoa		50
	Basogintza eta baso-izurriteen kontrola		40
	Baso-suteak itzaltzea		50
	Natura-ingurunea kontrolatzeko eta babesteko lanekoak ez diren lanbide-jardunbideak		120

A atala: **GAITASUN-ERREFERENTEA**

Prestakuntza-modulu hau bat dator gaitasun-atal honekin: UC0085_3 EHIZA- ETA ARRAIN-BALIABIDEEN USTIAPENA KONTROLATZEA

B atala: **AHALMENEN ETA EDUKIEN ZEHAZTAPENA**

Ahalmenak eta ebaluazio-irizpideak

- A1: Espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako espezien biologia, ohiturak eta banaketa geografikoa aztertzea.
- E1.1 Espazio zinegetikoetako eta ur kontinentaletako espazioetako habitaten ezaugarriak deskribatzea.
 - E1.2 Espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako espezieen kudeaketaren alderdi nagusiak zerrendatzea.
 - E1.3 Espezie zinegetikoetako eta ur kontinentaletako espezieetako populazioen eboluzio- eta bariazio-prozesuak identifikatzea.
 - E1.4 Ehiza- eta arrain-baliabideak ustiatzeko planen helburuak identifikatzea, elaborazio-prozesua, planaren zatiak eta dagokion habitatean aplikatzeko modua bereiziz.
 - E1.5 Espezie zinegetikoei eta ur kontinentaletako espeziei eragiten dieten gaixotasun nagusiak eta haien tratamendua zein diren jakitea.
 - E1.6 Espezie harraparien eta espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako espezieen lehiakide diren espezieen ezaugarri nagusiak deskribatzea, eta haiek kontrolatzeko sistemak azaltzea.
- A2: Indibiduo eta populazio zinegetikoak eta ur kontinentaletakoak zaintzeko, harrapatzeko, markatzeko eta haien segimendua egiteko sistemak, teknikak eta prozedurak deskribatzea.
- E12.1 Benetako ehiza- eta arrain-habitat baten kasu jakin batean:
 - Indibiduoak aurkitzeko, harrapatzeko eta markatzeko sistema, teknika eta lan-prozedura egokienak deskribatzea.
 - Populazio-errolak egiteko erabili beharreko teknikak identifikatzea.
 - Hobekuntzarako egokienak diren belardiko espezieak adieraztea.
 - Erriberako eta/edo uretako landare-espezierik egokienak aipatzea.
 - Zuhaixa- eta zuhaitz-erako landare-diaren tratamendu egokiak identifikatzea.
 - Gaixotasunak eta haien tratamendua identifikatzea.
 - Espezie lehiakorrek eta/edo harrapariak kontrolatzeko sistemak, teknikak eta prozedurak deskribatzea.
 - Birpopulatzeko sistema, teknika eta prozedura egokienak identifikatzea.
- A3: Bereiztea espezie zinegetikoen ur-kontinentaletako arrain-espezieen habitata eta birpopulazioa hobetzeko prozedurak.
- E13.1 Espezie zinegetikoen habitata hobetzeko landareari egiten zaizkion tratamenduak zerrendatzea.
 - E13.2 Espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako espezieen habitata hobetzeko lanen eta obren ezaugarriak deskribatzea.
 - E13.3 Espezie zinegetikoen habitata hobetzeko belardiko zer espezie erabiltzen diren identifikatzea.
 - E13.4 Ur kontinentaletako arrain-espezieen babes eta elikadura-eremu gisa balio duten erriberako eta uretako landare-espezieen ezaugarriak deskribatzea.
 - E13.5 Espezie zinegetikoak eta ur kontinentaletakoak itxian hazteko azpiegituren eta ekipamenduen ezaugarriak azaltzea.
 - E13.6 Espezie zinegetikoak eta ur kontinentaletakoak birpopulatzeko sistemak, teknikak eta prozedurak zehaztea.

EI3.7 Espezie zinegetikoetako eta ur kontinentaletako indibiduoak eta populazioak zaintzeko, harrapatzeko, markatzeko eta haien segimendua egiteko ekipoak eta bitartekoak erabiltzea.

A4: Ehiza eta arrantzari buruzko legedi eta araudi espezifikoak eta ingurumen-alorrekoa interpretatzea, espazio zinegetikoaren eta ur gezatako espazioaren kudeaketan.

EI4.1 Ehiza- eta arrantza-jarduerei eta espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako espezieen habitata kudeatzeko jardueri aplikatzen zaizen estatuko eta autonomia-erkidegoko legedia eta ingurumen-alorrekoa zein diren jakitea.

EI4.2 Habitat zinegetikoetako eta ur kontinentaletako legez kontrako jarduerak deskribatzea.

EI4.3 Ehiza eta arrantza praktikatzeko zer arrantza-arte, armamentu eta bestelako tresna eta ekipo dauden ezagutzea, eta dagokien modalitate edo teknikarekin erlazionatzea.

EI4.4 Espazio legal zinegetiko eta ur kontinentaletakoen funtzionamendua adieraztea, baita ehiza- eta arrantza-federazio eta elkarteena ere, eta haien esleipenak eta erantzukizunak eta administrazio publikoekin duten lotura identifikatzea.

EI4.5 Ehiza-trofeoen (eskukoa eta landakoa) balorazio-baremoak deskribatzea.

EI4.6 Ehiztari- edo arrantzale-talde baten segimendua egiteko kasu praktiko batean:

- Jarduera egiteko baimenak indarrean daudela egiaztatzea, bai ehizakoak bai arrantzakoak.
- Erabiltzen dituzten ehiza- edo arrantza-arteak eta daramatzaten armak behar bezala daudela egiaztatzea.
- Egin dituzten harrapaketak gainbegiratzea, neurri eta adinei buruzko araudia betetzen dutela egiaztatzeko.
- Jarduera hori horretarako baimendutako denboraldi eta lekuetan egiten dela egiaztatzea.
- Ikuskapen- edo atestatu-akta bat idaztea, arau-hauste administratibo bat edo ustezko delitu bat gertatuz gero.

Edukiak

1. Ehiza- eta arrain-espezieen habitataren eta birpopulazioaren identifikazioa eta hobekuntza.

- Ehiza-espeziak eta ur kontinentaletako arrain-espezieak
 - Ezaugarriak.
 - Debekualdiak
 - Helburu zinegetikoa
 - Banaketa geografikoa
 - Gaixotasunak eta izurriteak
- Espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako espezieen habitata
 - Ezaugarriak.
 - Ehiza- eta arrantza-guneetako baso-eremuak berreskuratzea
- Espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako espezieen habitata hobetzea

2. Ehiza-populazioen eta ur kontinentaletako arrain-populazioen segimendua eta kudeaketa.

- Espezie zinegetikoen eta ur kontinentaletako ehiza-espezieen habitata hobetzea:
 - Eraikuntzak eta instalazioak, erabiltzen diren materialak, ekipoak, erremintak eta bitarteko egokiak
 - Erabilerari eta mantentze-lanei buruzko teknikak
 - Ereite zinegetikoak, espezieak, zuhaixka- eta zuhaitz-erako landaredia hobetzea. Tratamenduak. Erriberako eta uretako landaredia landatzea eta kontserbatzea
- Populazioen dinamika.
 - Erroldak eta laginketak
 - Aparatuak, tresnak eta bitartekoak
- Ehiza- eta arrain-ustiapenen planak
- Espezie zinegetikoak eta ur kontinentaletako espezieak zaintzea eta babestea
- Espezie harrapariak eta exotiko lehiakideak
- Itxian haztea: arrain-haztegiak eta landetxe zinegetikoak
- Espezie zinegetikoak eta ur kontinentaletako espezieak berriro sartzea
 - Espeziak modu kontrolatuan sartzea
 - Segimendua

3. Espazio zinegetikoen eta ur gezatako espazioen kontrola.

- Ehiza- eta arrantza-modalitateak
 - Araudia
 - Ehiztarien eta arrantzaleen federazioak eta elkarteak
 - Ehiza-esparruak
 - Entrenalekuak
- Ehiza- eta arrantza-arteak:
 - Ehizatze eta arrantzan egiteko teknikak, modalitateak
 - Ehiza- eta arrantza-tresnak
 - Ehiza-txakurrak, hudoak, belatzak.

- Kontrol- eta segimendu-lanen banaketa eta esleipena
- Ehizatzearen eta arrantzan egitearen ingurumen-inpaktua
 - Araudia
 - Ehiza- eta arrantza-modalitateen antolakuntza, plangintza eta kontrola
 - Legez kontra ehizatzea eta arrantzan egitea
- Salaketa-prozedurak eta arau-hausteen zigorra
 - Ehiza-trofeoen balorazioa
 - Arte, arma eta trofeoen konfiskazioa eta lekualdaketa
- Ehiza eta arrantzari buruzko legedia: estatuko eta erkidegoko araudia. Espezie zinegetikoetan eta ur kontinentaletako espezieetan aplikatzen den ingurumen-legedia. Ezkutuko jarduerak, legez kontrako ehiza- eta arrantza-jarduerak. Atxilotzea, arau-hausteen txostena. Armen buruzko araudia.
- Segurtasun- eta osasun-arauak eta ingurumena babestekoak ehiza- eta arrantza-jardueretan

C atala: **ESKAKIZUNAK ETA BALDINTZAK**

Baldintza hauetakoren bat bete behar da:

- Batxilergoko titulua izatea.
- 3. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Lanbide-arlo eta -eremu bereko 2. mailako profesionaltasun-ziurtagiriren bat edukitzea.
- Goi-mailako heziketa-zikloetan sartzeko baldintza akademikoak betetzea edo goi-mailako zikloetara sartzeko dagozkion probak gainditu izana.
- 25 urte baino gehiagokoentzako eta/edo 45 urtetik gorakoentzako unibertsitatera sartzeko proba gainditu izana.
- Prestakuntzari behar adinako probetxua ateratzeko behar diren prestakuntza- edo lanbide-ezagapenak izatea, ezartzen den araudiaren arabera

Prestatzaileen, instalazioen eta ekipamenduen arloko eskakizunei dagokienez, profesionaltasun-ziurtagiri honetarako ezarritako eskakizunak hartuko dira kontuan: Natura-ingurunearen kontrola eta babesa.